FUNDACIÓN "MIGUEL INDURAIN" FUNDAZIOA
Kirolaren Etxea – Casa del Deporte
Pza. Aizagerria nº 1, 1ª Planta
31006 Pamplona (Navarra)
Tel. 699604388 - 51377
info@fundacionmiguelindurain.com

# PROCESO DE SELECCIÓN PARA LA PROVISIÓN DE LA GERENCIA DE LA FUNDACIÓN MIGUEL INDURÁIN FUNDAZIOA

Por acuerdo del Patronato de la Fundación Miguel Induráin Fundazioa, de fecha 10 de diciembre de 2024, se aprueba la convocatoria del proceso de selección de candidaturas para la provisión de la gerencia de la Fundación Miguel Induráin Fundazioa, entidad pública adscrita al Departamento de Cultura, Deporte y Turismo del Gobierno de Navarra.

## 1. OBJETO DE LA CONVOCATORIA

Es objeto de las presentes bases regular el proceso de selección para la provisión del puesto de Gerencia de la Fundación Miguel Induráin Fundazioa.

## 2. PUBLICIDAD DE LA CONVOCATORIA

Esta convocatoria será publicada en la página Web de la FMIF www.fundacionmiguelindurain.com , así como en los medios de comunicación propios de la fundación.

La resolución de la misma será anunciada públicamente y también publicada en la Web de la fundación.

## 3. DESCRIPCIÓN DE LA FUNDACIÓN MIGUEL INDURÁIN FUNDAZIOA

La Fundación Miguel Induráin Fundazioa (en adelante FMIF) es una Fundación constituida al amparo de lo dispuesto en la Ley 44 de la Compilación de Derecho Civil Foral de Navarra, con carácter de Fundación Pública, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 67 y 68 de la Ley Foral 11/2019, de 11 de marzo, de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra y del Sector Público Institucional Foral.

Se constituyó como entidad sin ánimo de lucro en 1998 con una clara vocación de progreso, de preparación y de formación deportiva, así como de acompañamiento a los y las deportistas en su itinerario deportivo.

En el año 2017, respondiendo a la necesidad de adaptarla a la nueva realidad deportiva de Navarra, la Fundación Miguel Indurain Fundazioa se transforma en una fundación pública, ampliando su objeto fundacional, líneas estratégicas de trabajo y dando una nueva redacción de sus estatutos.

Tiene como fines de interés general, de carácter deportivo, la promoción, el desarrollo y la mejora de la práctica del deporte y del ejercicio físico en Navarra, con especial atención al Deporte de Rendimiento; mejorar la preparación de las persona deportistas de Navarra; acompañar al y a la deportista en el momento de su retirada y su incorporación al mundo sociolaboral poniendo en valor el activo que representa para Navarra; fomentar y desarrollar programas de investigación, asistencia y formación en materia deportiva; y organizar y promover la realización de eventos y actos deportivos que contribuyan al desarrollo del deporte y el ejercicio físico en Navarra.

Los órganos de Gobierno de la Fundación Miguel Induráin Fundazioa, en los términos establecidos en sus Estatutos, son el Patronato y el Comité Ejecutivo.

4. FUNCIONES DEL PUESTO

La persona titular de la gerencia de la FMIF será responsable de la dirección ejecutiva y de la gestión operativa de la misma. Ejercerá las funciones establecidas en los estatutos de la FMIF, aprobados por el Patronato de la FMIF en sesión celebrada con fecha 20 de diciembre de 2023, sin perjuicio de otras funciones que, siguiendo las instrucciones del Patronato y del Comité Ejecutivo de la FMIF, se determinen al respecto. El patronato le otorgará el apoderamiento necesario para el desempeño de sus funciones.

El puesto de trabajo objeto de la presente convocatoria se desarrollará de manera habitual en la sede de la Fundación Miguel Induráin Fundazioa.

5. PRESENTACIÓN DE CANDIDATURAS

El plazo de presentación de candidaturas al proceso de selección de la gerencia de la FMIF, será a partir del día siguiente al de publicación de la convocatoria en la página web de la FMIF www.fundacionmiguelindurain.com y hasta las 12:00 horas del día 24 de enero de 2025.

Quienes deseen tomar parte en el procedimiento selectivo deberán presentar su solicitud, mediante instancia dirigida a la Presidencia del Patronato de la FMIF, en los registros y oficinas de atención ciudadana habilitados o a través del Registro General Electrónico del Gobierno de Navarra, indicando en el tema "Proceso de selección de la Gerencia de la FMIF".

Asimismo, podrán presentar su solicitud por correo certificado a la dirección de la FMIF "*Kirolaren Etxea – Casa del Deporte, Pza. Aizagerria nº 1, 1ª Planta. 31006 Pamplona (Navarra)*", mediante sobre único cerrado en el que se indique en su exterior "Proceso de selección de la Gerencia de la FMIF". En caso de presentar por correo certificado, deberá de mandar dentro del plazo estipulado un correo electrónico a info@fundacionmiguelindurain.com adjuntando el justificante de entrega en plazo. Si no llega en el plazo de siete días dicha documentación, se tendrá como no presentada.

Las personas candidatas deberán presentar su solicitud conforme a los modelos establecidos en el Anexo I "Modelo de solicitud" y Anexo II "Hoja resumen de candidatura" del presente documento, debiendo presentar toda la documentación que acredite convenientemente los requisitos y méritos requeridos en la presente convocatoria. La documentación deberá ser original o copia compulsada.

La solicitud deberá ir acompañada de la siguiente documentación:

- Curriculum vitae pormenorizado, en el que se haga constar la titulación académica, estudios y formación que posean, su trayectoria y experiencia en el ámbito deportivo y/o de gestión de fundaciones, entidades sin ánimo de lucro u otras instituciones, organismos o empresas tanto públicas como privadas de similares características o actividad, en especial del sector deportivo, así como conocimiento de idiomas y cuantos otros méritos estimen oportuno poner de manifiesto.
- Propuesta estratégica y de gestión de la FMIF, con descripción del plan de desarrollo organizacional y humano a corto, medio y largo plazo, que detalle entre otros aspectos las líneas estratégicas propuestas, la política de gestión económica y administrativa, metodología a desarrollar y cronograma de las actuaciones, la política de gestión de las convocatorias de ayuda, gestión de fuentes de financiación, el sistema de seguimiento y evaluación y cuantos elementos considere oportunos en el desarrollo de la propuesta. La propuesta tendrá una extensión máxima de 30 folios a una cara.

## 6. PERFIL PROFESIONAL REQUERIDO

Las personas candidatas que deseen participar en el presente proceso selectivo deberán reunir y acreditar los siguientes requisitos y méritos;

### I. REQUISITOS

- Tener nacionalidad española o la de un Estado Miembro de la Unión Europea. Igualmente podrán participar en el proceso selectivo en igualdad de condiciones, los extranjeros residentes en España que reúnan los requisitos exigidos en la Ley Orgánica 2/2000, de 11 de enero, sobre derechos y libertades de los extranjeros en España y su integración social. Será requisito

indispensable, el conocimiento pleno del idioma español, a nivel hablado y escrito.

- No hallarse incurso/a en ninguno de los supuestos de incapacidad o incompatibilidad establecidos en la legislación vigente, ni haber sido separado/a mediante expediente disciplinario de cualquier administración pública ni encontrarse inhabilitado/a para el ejercicio de funciones públicas.
- Licenciatura, diplomatura o grado universitario, preferiblemente en el ámbito deportivo.
- Experiencia mínima contrastada de 2 años en la dirección y/o gestión de fundaciones, entidades sin ánimo de lucro u otras instituciones, organismos o empresas tanto públicas como privadas, preferiblemente del sector deportivo.
- Informática: Habituado/a al manejo de herramientas informáticas.

II. MÉRITOS

- Formación académica (máster, postgrado, especialidad) en dirección y gestión de entidades y empresas, en especial en el ámbito deportivo y otras enseñanzas regladas y no regladas.
- Dominio de idiomas: inglés, francés y euskera.
- Experiencia profesional a nivel directivo.

La comisión de valoración valorará únicamente los méritos alegados en el Curriculum Vitae cuando estén acompañados de copia compulsada de los documentos acreditativos de la formación y/o experiencia profesional.

Para acreditar la experiencia profesional deberá presentarse, en el caso de personas trabajadoras asalariadas, certificado de vida laboral actualizado expedido por la tesorería general de la Seguridad Social, donde conste la empresa, categoría

laboral (grupo de cotización) y el periodo de contratación. En el caso de personas trabajadoras autónomas o por cuenta propia, certificado de vida laboral expedido por la tesorería general de la Seguridad Social de los periodos de alta en la Seguridad Social en el régimen especial correspondiente y descripción de la actividad desarrollada e intervalo de tiempo en el que ha realizado la misma.

7. COMISIÓN DE VALORACIÓN

La comisión de valoración que formará parte del proceso de selección para la provisión del puesto de Gerencia de la Fundación Miguel Induráin Fundazioa estará compuesta por:

- **Presidenta:** Dª Rebeca Esnaola Bermejo. Consejera del Departamento de Cultura, Deporte y Turismo. Presidenta del Patronato de la FMIF.
- **Vocal**: D. Jorge Aguirre Oviedo. Director-Gerente del Instituto Navarro del Deporte y de la Actividad Física. Miembro del Patronato y Presidente del Comité Ejecutivo de la FMIF.
- **Vocal**: Doña Sandra Muñoz Pérez. Subdirectora de Promoción del deporte y la Actividad Física. Miembro del Patronato de la FMIF.
- **Vocal**: D. Xabier Larraya Garriz. Subdirector de Atención a Entidades y Rendimiento Deportivo. Miembro del Patronato de la FMIF.
- **Vocal**: Una persona miembro del Patronato de la FMIF.
- **Vocal**: Persona de experiencia contrastada en la dirección y gestión de fundaciones o entidades del sector deportivo.
- **Secretaria**: Doña Natalia Pérez Garraza. Secretaria del Patronato de la FMIF.

La comisión de valoración tendrá por objeto llevar a cabo el procedimiento de apreciación motivada de las personas candidatas y proponer a la que cumpla con los requisitos y méritos más adecuados conforme al perfil del puesto convocado.

La comisión de valoración resolverá por mayoría todas las cuestiones que puedan plantearse en relación con la interpretación y aplicación de las bases de la presente convocatoria. Asimismo, podrá incorporar asesores especialistas para el proceso de selección, que se limitarán al ejercicio de sus especialidades técnicas y colaborarán con la comisión en base exclusivamente a aquéllas.

La comisión de valoración está facultada para resolver las dudas e incidencias que se presenten durante el proceso, así como para adoptar los acuerdos necesarios en todo aquello no previsto expresamente en las presentes bases.

## 8. PROCESO DE SELECCIÓN

Con el fin de valorar y atender a los principios de mérito, capacidad e idoneidad, garantizando la publicidad, no discriminación y concurrencia, el procedimiento de selección constará de tres fases:

I. Valoración, por parte de la comisión, del Curriculum Vitae en relación con el perfil profesional requerido y de la propuesta estratégica y de gestión de la FMIF presentada.

II. Defensa oral de la propuesta estratégica y de gestión de la FMIF. Las personas candidatas podrán defender de manera presencial e individual (en acto privado sin apertura al público) ante la comisión de valoración su propuesta estratégica y de gestión, durante un tiempo aproximado de 20 minutos. La defensa de la propuesta estratégica debe ceñirse a la propuesta presentada por la persona candidata en la solicitud, no siendo valorada por parte de la comisión ninguna nueva información no contenida en ella. El material auxiliar

que considere oportuno para la correcta defensa de su propuesta lo deberán aportar las propias personas candidatas. La comisión de valoración podrá formular cuantas preguntas o cuestiones considere necesarias referidas a la exposición durante un tiempo aproximado de 10 minutos. Solo accederán a esta exposición un número máximo de 10 personas mejor valoradas en el apartado I.

III. Entrevista personal. Consistirá en la realización de una entrevista personal que permita valorar la capacidad y habilidades de la persona candidata para desarrollar el puesto objeto de convocatoria y determinar su grado de adecuación a las exigencias del perfil profesional requerido.

Esta prueba se realizará por profesionales del ámbito de RRHH y sus valoraciones vincularán a la comisión de valoración.

A la realización de esta prueba accederán únicamente las tres personas mejor valoradas en los apartados I y II.

El proceso de selección podrá declararse desierto si ninguna de las personas candidatas reuniese el perfil necesario para el desempeño del puesto.

## 9. RÉGIMEN DE CONTRATACIÓN, RETRIBUCIONES E INCOMPATIBILIDADES

### 9.1. Régimen de contratación

La persona seleccionada para ocupar el puesto objeto de convocatoria suscribirá con la FMIF un contrato de naturaleza laboral, celebrado al amparo de lo dispuesto en el Real Decreto 1382/1985, de 1 de agosto, por el que se regula la relación laboral especial de alta dirección, siendo aplicable el texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores solo en los casos en que se produzca remisión expresa de dicho Real Decreto a aquel o así se haga constar en el contrato.

El puesto de gerencia de la FMIF está sometido a las restricciones contempladas en la Ley Foral 19/1996, de 4 de noviembre, de incompatibilidades de los miembros del Gobierno de Navarra y de los altos cargos de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra.

9.2. Duración del contrato

El contrato comenzará a prestarse el 1 de mayo de 2025 y tendrá una duración de cuatro años, incluyendo un periodo de prueba de seis meses.

Al término del contrato, este podrá ser prorrogado año a año por acuerdo del Patronato de la FMIF y del propio interesado.

9.3. Retribuciones

Las retribuciones máximas a percibir por la persona contratada serán las previstas en los presupuestos de la entidad convocante, que se fijan en 54.000,00 euros anuales, referido a catorce mensualidades.

Las retribuciones de las personas que ocupan la dirección de las fundaciones públicas de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra se fijarán en las Leyes Forales de Presupuesto Generales de Navarra.

10. CONFIDENCIALIDAD

Todas las personas e instituciones implicadas en el proceso de selección se comprometen a garantizar confidencialidad absoluta relativa a la participación de las personas candidatas en este proceso de selección asegurando que la participación de las personas no seleccionadas quedará en el estricto ámbito de la fundación, de manera que exclusivamente se hará público el nombre de la persona seleccionada.

11. IGUALDAD

Este proceso se rige por los principios de igualdad de acuerdo con el artículo 14 de la Constitución Española y la Ley Orgánica 2/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de hombres y mujeres.

## 12. AMPLIACIÓN DE INFORMACIÓN Y DOCUMENTACIÓN ADICIONAL

En la Web de la fundación www.fundacionmiguelindurain.com se puede obtener información actualizada sobre la estructura, órganos de gobierno, estatutos y objetivos de la fundación, así como la actualidad de la misma.

La comisión de valoración facilitará a las personas interesadas que así lo soliciten, la siguiente información a través del correo electrónico info@fundacionmiguelindurain.com ;

- Presupuesto FMIF 2025
- Memoria del ejercicio 2024 FMIF
- Cuentas auditadas de los últimos ejercicios, 2022 y 2023

**MIGUEL INDURAIN FUNDAZIOA**
Kirolaren Etxea
Aizagerria plaza 1, 1. solairua
31006 Iruñea (Nafarroa)
Tel.: 699604388 - 51377
info@fundacionmiguelindurain.com

# HAUTAPEN PROZESUA, MIGUEL INDURAIN FUNDAZIOKO KUDEATZAILEAREN LANPOSTUA BETETZEKOA

Miguel Induráin Fundazioaren Patronatuak 2024ko abenduaren 10ean hartutako erabakiaren bidez, Miguel Induráin Fundazioko kudeatzailearen lanpostua betetzeko hautagaiak aukeratzeko prozesuaren deialdia onetsi zen. Fundazioa Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuari atxikitako entitate publikoa da.

1. DEIALDIAREN XEDEA

Oinarri hauen xedea da Miguel Induráin Fundazioko kudeatzailearen lanpostua betetzeko hautapen prozesua arautzea.

2. DEIALDIA ARGITARATZEA

Deialdi hau Miguel Induráin Fundazioaren webgunean (https://www.fundacionmiguelindurain.com/) argitaratuko da, bai eta fundazioaren komunikabide propioetan ere.

Deialdiaren ebazpena jendaurrean iragarriko da eta fundazioaren webgunean argitaratu.

3. MIGUEL INDURÁIN FUNDAZIOAREN DESKRIBAPENA

Miguel Induráin Fundazioa (aurrerantzean, MIF) Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioaren 44. Legean xedatutakoaren babesean eratutako fundazioa da, fundazio publikoko izaera duena, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 67. eta 68. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.

**MIGUEL INDURAIN FUNDAZIOA**
Kirolaren Etxea
Aizagerria plaza 1, 1. solairua
31006 Iruñea (Nafarroa)
Tel.: 699604388 - 51377
info@fundacionmiguelindurain.com

1998. urtean, irabazi-asmorik gabeko erakunde gisa eratu zen, eta bere asmo argia zen kirol aurrerapena eta prestakuntza, bai eta kirolariei beren kirol ibilbidean laguntzea ere.

2017an, Nafarroako kirolaren errealitatera egokitu beharrari erantzunez, erakundea fundazio publiko bailakatu zen: Miguel Induráin Fundazioa. Horretarako, bere xedea eta lan-ildo estrategikoak handitu zituen eta estatutuak berridatzi.

Kirol arloko interes orokorreko xede hauek ditu: Nafarroan kirola eta ariketa fisikoa sustatzea, garatzea eta horien praktika hobetzea, arreta berezia emanik errendimenduko kirolari; Nafarroako kirolarien prestakuntza hobetzea; kirolariari lagun egitea erretiratzen denean eta gizarte zein lan mundura sartzen denean, nabarmenduz Nafarroarentzat duen balioa; kirol arloko ikerketa, laguntza eta prestakuntza programak sustatzea eta garatzea; eta kirol jardunaldi eta ekitaldiak antolatzea eta sustatzea, Nafarroan kirolaren eta ariketa fisikoaren garapenari laguntzeko.

Miguel Induráin Fundazioaren estatutuetan ezarritakoaren arabera, fundazioaren gobernu organoak Patronatua eta Batzorde Betearazlea dira.

## 4. LANPOSTUAREN EGINKIZUNAK

MIFko kudeatzailea fundazioaren zuzendaritza exekutiboaz eta kudeaketa operatiboaz arduratuko da. 2023ko abenduaren 20an egin bilkuran Patronatuak onetsitako MIFaren estatutuetan ezarritako eginkizunak beteko ditu, deusetan galarazi gabe Patronatuaren eta Batzorde Betearazlearen jarraibideen arabera ezartzen diren bestelako eginkizunak. Haren eginkizunak betetzeko behar den ahala emanen dio Patronatuak.

Deialdi honen xedea den lanpostuan arituko denak normalean Miguel Induráin Fundazioaren egoitzan lan eginen du.

## 5. HAUTAGAITZEN AURKEZPENA

MIFko kudeatzailearen hautapen prozesurako hautagaitzak aurkezteko epea deialdia MIFaren webgunean (https://www.fundacionmiguelindurain.com/) argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko da, eta 2025eko urtarrilaren 24an, 12:00etan, bukatuko da.

Hautapen prozesuan parte hartu nahi dutenek eskaera aurkeztu behar dute, MIFaren Patronatuko Lehendakaritzari zuzendua, gaitutako erregistroetan eta herritarren arretarako bulegoetan edo Nafarroako Gobernuko Erregistro Orokor Elektronikoaren bidez, eta gaian "MIFko kudeatzailea hautatzeko prozesua" idatzi.

Halaber, eskaera posta ziurtatuaz bidaltzen ahal da MIFaren helbidera (*"Kirolaren Etxea – Aizagerria plaza 1, 1. solairua. 31006 Iruñea (Nafarroa)*"), gutun-azal itxi bakar batean, eta kanpoaldean "MIFko kudeatzailea hautatzeko prozesua" idatzi behar da. Posta ziurtatuaz bidaliz gero, ezarritako epearen barruan mezu elektroniko bat bidali behar da info@fundacionmiguelindurain.com helbidera epearen barruan entregatu izanaren egiaztagiria erantsita. Dokumentazio hori zazpi eguneko epean iristen ez bada, ez aurkeztutzat hartuko da.

Hautagaiek dokumentu honen I. eranskinean ("Eskabide eredua") eta II. eranskinean ("Hautagaitzaren laburpen-orria") ezarritako ereduen arabera aurkeztu beharko dute eskaera. Halaber, deialdian eskatutako betebeharrak eta merezimenduak behar bezala frogatzen dituzten agiri guztiak aurkeztu behar dituzte. Agiriak jatorrizkoak edo kopia konpultsatuak izanen dira.

Eskabidearekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Curriculum vitae xehatua, honako hauek jasotzen dituena: titulazio akademikoa, ikasketak eta prestakuntza; kirolaren esparruan dituen ibilbidea eta esperientzia, eta/edo esperientzia zuzendaritza eta/edo kudeatzailetzako lanetan fundazioetan,

irabazi-asmorik gabeko entitateetan edo bestelako erakunde edo enpresa publiko zein pribatuetan, bereziki kirol sektorean; hizkuntzen ezagutza; eta adieraztea egokitzat jotzen duen merezimendu guztiak.

- MIFaren kudeaketarako proposamen estrategikoa; bertan deskribatu behar du antolaketa eta giza garapenerako plana, epe labur, ertain eta luzerako, besteak beste honako alderdi hauek zehazten dituena: proposatutako ildo estrategikoak, kudeaketa ekonomiko eta administratiboaren politika, garatu beharreko metodologia eta jarduketen kronograma, laguntza-deialdiak kudeatzeko politika, finantzaketa-iturrien kudeaketa, jarraipen eta ebaluazio sistema, eta proposamena garatzeko egokitzat jotzen dituen elementu guztiak  Proposamenak gehienez ere 30 orri izanen ditu, alde bakarrean idatzita.

6. ESKATUTAKO LANBIDE PROFILA

Hautapen prozesuan parte hartu nahi duten hautagaiek honako betebehar eta merezimendu hauek bete beharko dituzte:

I. BETEBEHARRAK

- Espainiako nazionalitatea izatea, edo Europar Batasuneko beste estatu batekoa. Halaber, hautapen prozesuan baldintza berdinetan parte hartu ahal izanen dute Espainian bizi diren atzerritarrek, baldin eta Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 2/2000 Lege Organikoan eskatutako betekizunak betetzen badituzte. Ezinbesteko baldintza izanen da gaztelaniaz oso ongi jakitea, ahozko eta idatzizko mailan.

- Ez edukitzea indarreko legerian ezarritako ezintasun edo bateraezintasun arrazoietako bakar bat ere, ez izatea diziplinazko espediente bidez ezein administrazio publikoren zerbitzutik bereizia eta ez egotea desgaitua eginkizun publikoak betetzeko.
- Unibertsitateko lizentzia, diploma edo gradua, ahal dela, kirolaren arlokoa.
- Gutxienez 2 urteko lan esperientzia izatea zuzendaritza eta/edo kudeatzailetzako lanetan fundazioetan, irabazi-asmorik gabeko entitateetan edo bestelako erakunde edo enpresa publiko zein pribatuetan, ahal dela, kirol sektorean.
- Informatika: Tresna informatikoak erabiltzera ohituta egotea.

II. MEREZIMENDUAK

- Prestakuntza akademikoa (masterra, graduondokoa, espezialitatea) erakundeen eta enpresen zuzendaritzan eta kudeaketan, bereziki kirol arloan, eta beste irakaskuntza arautuak eta ez arautuak.
- Hizkuntzak jakitea: ingelesa, frantsesa eta euskara.
- Lan esperientzia zuzendaritza mailan.

Balorazio batzordeak curriculum vitaen adierazitako merezimenduak baloratuko ditu soilik prestakuntza eta/edo lanbide esperientzia egiaztatzen dituzten agirien kopia konpultsatua aurkezten badira.

Lanbide esperientzia frogatzeko, soldatako langileen kasuan, lan-bizitzaren ziurtagiri eguneratua aurkeztu beharko dute, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrak emana; bertan enpresaren izena, lan kategoria (kotizazio taldea) eta kontratazio aldia jaso behar dira. Langile autonomoen edo norberaren konturako langileen kasuan, lan-bizitzaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrak emana, non adierazten baita Gizarte

Segurantzan, dagokion araubide berezian, afiliatuta egon diren aldiak, garatutako jardueraren deskribapena eta denbora tarteak.

7. BALORAZIO BATZORDEA

Miguel Induráin Fundazioko kudeatzailearen lanpostua betetzeko hautapen prozesuan parte hartuko duen balorazio batzordea honako hauek osatuko dute:

- **Batzordeburua:** Rebeca Esnaola Bermejo andrea. Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuko kontseilaria. MIFaren Patronatuko lehendakaria.
- **Batzordekidea:** Jorge Aguirre Oviedo jauna. Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuko zuzendari kudeatzailea. MIFaren Patronatuko kidea eta Batzorde betearazleko lehendakaria.
- **Batzordekidea:** Sandra Muñoz Pérez andrea. Kirola eta Jarduera Fisikoa Sustatzeko zuzendariordea. MIFaren Patronatuko kidea.
- **Batzordekidea:** Xabier Larraya Garriz jauna. Entitateei Arreta Egiteko eta Kirol Errendimendurako zuzendariordea. MIFaren Patronatuko kidea.
- **Batzordekidea:** MIFaren Patronatuko kide bat.
- **Batzordekidea:** Kirolaren sektoreko fundazio edo entitateetako zuzendaritzan eta kudeaketan esperientzia egiaztatua duen pertsona bat.
- **Idazkaria:** Natalia Pérez Garraza andrea. MIFaren Patronatuko idazkaria.

Balorazio batzordearen xedea izanen da hautagaien balorazioa egitea, modu arrazoituan, eta proposatzea deialdiaren baldintzak betetzen dituen eta lanpostuaren profilera hobekien egokitzen diren merezimenduak dituen hautagaia.

Balorazio batzordeak gehiengoz ebatziko ditu deialdiko oinarrien interpretazioaren eta aplikazioaren inguruan sortzen diren gaiak. Halaber, hautapen prozesuan aholkulari espezialistak sar daitezke; beren espezialitate teknikoetan baizik ez dute jardunen eta batzordearekin elkarlanean arituko dira soilik espezialitate horiei dagokienez.

Balorazio batzordeak ahalmena du prozesuan zehar sortzen diren zalantzak eta gorabeherak ebazteko, bai eta oinarrietan berariaz ezarri ez den orotan beharrezko erabakiak hartzeko ere.

8. HAUTAPEN PROZESUA

Merezimendu, gaitasun eta egokitasun printzipioak baloratzeko eta aintzat hartzeko, eta publizitatea, diskriminaziorik eza eta lehia bermatzeko, hautapen prozesuak hiru fase izanen ditu:

I. Aurkeztutako curriculum vitaea baloratzea, eskatutako lanbide profilaren arabera, baita aurkeztutako MIFaren kudeaketarako proposamen estrategikoa ere.

II. MIFaren kudeaketarako proposamen estrategikoa ahoz defendatzea. Hautagaiek beren kudeaketarako proposamen estrategikoa balorazio batzordearen aurrean defendatzen ahalko dute, aurrez aurre eta banan-banan (ekitaldi pribatuan, jenderik gabe), gutxi gorabehera 20 minutuz. Proposamen estrategikoaren defentsa mugatu beharko da hautagaiak eskaeran aurkeztutako proposamenaren edukira; beraz, balorazio batzordeak ez du baloratuko bertan ez dagoen inongo informaziorik. Hautagaiek beraiek eraman beharko dute proposamena behar bezala defendatzeko egokitzat jotzen duten material osagarria. . Balorazio batzordeak ahozko azalpenari buruzko nahi adina galderak egiten ahal izanen ditu, gutxi gorabehera 10 minutuz. I. atalean hobekien baloratutako 10 pertsonek baino ez dute eginen ahozko azalpena.

III. Elkarrizketa pertsonala. Elkarrizketa pertsonala eginen da. Haren bidez, baloratuko dira deialdiaren xedeko lanpostuaren eginkizunak betetzeko hautagaiek dituzten gaitasuna eta trebetasuna, eta zehaztuko da noraino egokitzen diren eskatutako lanbide profilera.

Giza Baliabideen arloko profesionalak arduratuko dira elkarrizketak egiteaz eta beren balorazioak lotesleak izanen dira balorazio batzordearentzat.

I. eta II. ataletan hobekien baloratutako lehendabiziko 3 hautagaiek baino ez dute eginen proba hori.

Hautapen prozesua hutsik deklaratzen ahalko da hautagai bakar batek ere ez badu betetzen lanpostuan aritzeko behar den profila.

9. KONTRATAZIO ARAUBIDEA, ORDAINSARIAK ETA BATERAEZINTASUNAK

9.1. Kontratazio araubidea

Deialdiaren xede den lanpostua betetzeko hautatutako pertsonak lan kontratu bat sinatuko du MIFarekin, goi-zuzendaritzako lan-harreman berezia arautzen duen abuztuaren 1eko 1382/1985 Errege Dekretuan xedatutakoaren babesean, eta Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina aplikatuko da soilik errege dekretu horretan hari aipu zehatza egiten zaionean edo kontratuan hala jasotzen denean.

MIFko kudeatzailearen lanpostua 19/1996 Foru Legean ezarritako murrizketen mende dago (19/1996 Foru Legea, azaroaren 4koa, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioko goi karguen bateraezintasunei buruzkoa).

9.2. Kontratuaren iraupena

Kontratua 2025eko maiatzaren 1ean hasiko da eta 4 urteko iraupena izanen du, sei hilabeteko probaldia barne.

Kontratua amaitzen denean, urtez urte luzatzen ahal izanen da MIFaren Patronatuak eta interesdunak hala erabakiz gero.

9.3. Ordainsariak

Erakunde deitzailearen aurrekontuetan ezarriko dira kontratatutako pertsonak jaso beharreko gehieneko ordainsariak: urtean 54.000,00 euro, hamalau hilekotan banatuta.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko fundazio publikoetako zuzendarien ordainsariak Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru legeetan finkatuko dira.

## 10. KONFIDENTZIALTASUNA

Hautapen prozesuan parte hartzen duten pertsona eta erakunde guztiek konpromisoa hartzen dute hautagaien parte-hartzeari buruz erabateko konfidentzialtasuna bermatzeko, ziurtatuz hautatu ez diren pertsonen gaineko informazio guztia fundazioaren barnean geldituko dela; beraz soilik argitaratuko da hautatuaren izena.

## 11. BERDINTASUNA

Berdintasun printzipioek zuzenduko dute prozesua, Espainiako Konstituzioaren 14. artikuluaren eta Gizonen eta Emakumeen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 2/2007 Lege Organikoaren arabera.

## 12. INFORMAZIOA ETA DOKUMENTAZIO OSAGARRIA ESKURATZEA

Fundazioaren webgunean (http://www.fundacionmiguelindurain.com) informazio eguneratua eskura daiteke honi buruz: fundazioaren egitura, gobernu organoak, estatutuak eta xedeak, bai eta fundazioaren gaurkotasuna ere.

Interesdunek eskatuta, Balorazio batzordeak informazio hau emanen die posta elektronikoz (info@fundacionmiguelindurain.com):

**MIGUEL INDURAIN FUNDAZIOA**
Kirolaren Etxea
Aizagerria plaza 1, 1. solairua
31006 Iruñea (Nafarroa)
Tel.: 699604388 - 51377
info@fundacionmiguelindurain.com

- MIFaren 2025eko aurrekontuak
- MIFaren 2024ko ekitaldiaren memoria
- Azken ekitaldietako (2022 eta 2023) kontu ikuskatuak.